

1. eranskina

**ORIENTABIDE AKADEMIKO ETA PROFESIONALERAKO
PLANA**

1. ABIAPUNTUKO PRINTZIPIOAK

- Orientabide Akademiko eta Profesionalerako Plana ikastetxearen Tutoretza Planaren barnean dago. Bertan zehazten dira zer-nolako jarduerak garatzen diren gure ikasleei laguntzeko, euren ibilbide akademikoan, eta etorkizunari begira, hartu behar dituzten erabakietan.
 - Ahal den heinean, Orientabide Zerbitzuaren funtzioa, biderik onena bilatu eta hartzeko bideak erraztean datza.
 - Jarduerak helburu hauek dituzte: alde batetik, hezkuntza sisteman jarraitzeko asmotan, ibilbide akademikoan hautaketa erraztea, eta, bestetik, prestakuntza bukatutzat ematen denean, lanaren munduan sartzeko bideak erraztea.
 - Orientabide akademikoa eta profesionalak, bokazioari dagokionez, ez du helburutzat ikasleak norabide batean edo bestean gidatzea. Aitzitik, gaitasun eta trebetasunen garapen prozesua bultzatu nahi du, ikasleak berak, askatasunez eta arduraz, bere erabakiak har ditzan, ez bakarrik hezkuntzaren gaur eguneko momentuan, baita, oro har, bere bizitzan ere.
 - Uribarri BHIko orientabide akademikoa eta profesionalaren helburua hauxe izango litzateke: ikasleak modu errealista eta planifikatuan erabakiak hartzen ikas dezan, ondoko alderdi hauetan oinarriturik:
 - a) Ikasleak bere interesguneak, gaitasunak eta baliabideak egoki jakin behar ditu.
 - b) Halaber, heziketa eskaintzak eta lan eremukoak ere egoki jakin behar ditu, baita aukera bakoitzak zein bide itxi edo irekitzen duen ere.
 - c) Lan munduaren eskakizunak ere jakin behar ditu, baita euren loturak ikasketekin ere.
 - d) Erabakiak hartzeko estrategiak eta trebetasunak egoki menperatu behar ditu: interesguneak identifikatzea, hautaketak argitzea, ondorioak kontuan hartzea, eta erabakiak hartzea.
 - Nahiz eta tutoretza izaten den orientabide akademiko eta profesionalaren edukiak lantzeko gune nagusia, lehen aipatutako hainbat ezagutza eta trebetasun irakasgaien ikaskuntzaren bitartez ere lantzen dira. Iritzi okerra da ekintza puntualen bidez erabaki arduratsuak hartzeko gaitasuna eskuratzen delako ustea. Hala nola, informazio hitzaldiak, elkarrizketak tutorearekin edo orientatzailearekin.
- Era berean, maila edo ziklo batean jarduera espezifikoak planifikatzen diren arren, programazio didaktikoek eta tutoretzak norabide horretako jarduerak ere garatu behar dituzte.
- Ikastetxeko zuzendaritzak koordinatzen du, orientatzailearen laguntzaz, planaren garapena; halaber, orientatzailearen ardura izango da tutoreei

beharrezko baliabideak eta laguntza espezifikoak ematea, Tutoretza Planaren bitartez garatu ahal izateko.

2. PLANAREN KOORDINAZIOA ETA JARRAIPENA

- Tutoreen eta Orientatzaileen arteko aldizkako bileretan garatuko da koordinazioa. Bertan materialak eta beharrezko baliabideak planifikatuko dira, baita egingo diren jarduerak ere, bai ikasleekin, bai familiekin.
- Orientatzaileak gauzatuko diren jardueren proposamena egingo du, eta, ekintza horietan, partaidea ere izango da. Ikasturtearen amaieran, planaren balorazio txostena egingo da; bertan, tutoretzen ekarpenak ere bilduko dira, burututako jardueren egokitasuna aztertuko da, eta, hurrengo ikasturteei begira, hobekuntzarako proposamenak formulatuko dira.
- Galdeketa baten bidez, ikasleen adostasun maila neurtuko da, eskuratutako informazioari, emandako arretari eta erabilitako materialei dagokienez.

3. EKINTZARAKO ILDO NAGUSIAK MAILA GUZTIETAN

Hiru dira ildo nagusiak orientabiderako plan guztietan:

1. Lanbide proiektua:

- Helmugak eta xedeak
- Heziketa ibilbidea
- Prestakuntza arautua eta ez arautua
- Lan merkatua

2. Etorkizun akademiko eta profesionalari buruzko informazioaren aukeraketa

- Informazio iturri ezberdinak erabili (digitala, gidak, web ofizialak).
- Informazioa ordenatu eta sailkatu
- Lortutako informazioaren garrantzia baloratu

3. Erabakiak hartzeko:

- Hartu behar den erabakia identifikatu eta definitu.
- Norberarentzat eta norberak lortu nahi duenerako zer den garrantzitsua jakin.
- Daukagun informazioa aztertu.
- Aukera ezberdinen arriskuak eta abantailak baloratu.
- Ekintzarako plana egin.
- Hartutako erabakia baloratu.

4. BERARIAZKO JARDUERAK DBHko 1. eta 2. MAILETAN

Ikasturtearen hasieran, taldean lantzen diren tutoretza eduki nagusien artean, ziklo edo etapa berriari buruzko informazioa nabarmentzea da, ikaslea, maila berrian, ahalik eta ondoen egon dadin. Ezberdintasunak azalduko dira: ordutegiak, irakasleen taldea, irakasgai berriak, exijentzia eta lanaren dinamika, mailaz igarotzeko irizpideak, aukerako irakasgaiak, etab.

Aukerako irakasgaiari dagokienez, DBHko 2. eta 3. mailetan, ikasleei tutoreek emango diete eskainitako irakasgai guztiei buruzko informazio zehatza eta argia. Informazio hori inplikaturiko mintegiek jarriko dute eskuragarri 3. hiruilekoan (Apirilean/Maiatzean).

Ohiko curriculumak garatzeko zailtasunak dituzten ikasleen kasuetan, irakaskuntza osagarrian jarraitzeko erabaki argia azaltzen baldin badute ikasle horiek, baita euren familiek ere, ekainean zehar arreta berezia eskainiko die orientatzaileak, eskatutako baldintzen berri izateko, irakaskuntza osagarriko ikastetxeak ezagutzeko (Bolueta San Mamés Zentroa), eta Eskolatzeko Osagarriko Programarako txostenak egiteko.

Halaber, etapan zehar aurrera egin nahi duten ikasleei azalduko zaie zer nolako aldaketa dakarren DBHko 3. mailara igarotzeak, baita Curriculum Desberdinetako aukera espezifikoak zertan datzan ere, baldin eta ikasleek DBHko titulua lortzeko helbururik badute, eta laguntza berezia ere behar badute ezagutza eremuen araberrako curriculum antolaketan.

Prozedurak:

- 2. ebaluazioko bileretan, tutoreek aintzat hartuko dituzte CD taldeetan sar litezkeen ikasleak.
- DBHko koordinatzaile, tutore eta orientatzailearekin aztertuko da proposamena.
- Orientatzaileak eta CD taldeetako irakasleek familiei aurkezten diete proposamena.
- Irakasleen taldeak berresten du proposatutako ikasleen zerrenda.

DBH eta Batxilergoko matrikulazioarekin batera, Zuzendaritzak eta DBHko Koordinatzaileak institutura etorriko diren ikasle berrien familiei aurkeztuko dizkiete ikastetxea eta hezkuntza eskaintza.

Orientatzaileak garatuko dituen jarduerak:

- Tutoretzarako materialak egin (PPT aurkezpenak).
- Hitzorduak zuzenean adostu CD taldeetako aukerak eta irtenbide aurre-profesionalak hartzen dituzten ikasleekin eta euren familiekin.
- Ikastetxe jakin batzuk bisitatzen lagundu ikasleei.
- Txosten akademikoak bideratu.
- Programa bereziak dituzten ikasleen jarraipena egin.

5. BERARIAZKO JARDUERAK DBHko 3. MAILAN

Tutoretza planaren barnean garatzen diren jarduerak

Tutoretza saioetan, ondoko alderdi hauen berri eman eta aztertu egingo dira:

- Mailak etapa barruan duen garrantzia.
- DBHko 4. mailako ezaugarri bereziak, aukerako irakasgaiak kontuan hartuta (helburuak eta abantailak, arloko irakasleak apirilean-edo azalduko dituenak).
- Matematika arloan, A eta B aukeren garrantzia.
- Titulazioaren garrantzia: hezkuntza sistemak eskaintzen dituen balizko irtenbideak (zer diren eta zertarako balio duten Batxilergoak eta Lanbide Heziketak).
- Errepikatzeko irizpideak.
- Curriculum Desberdinetako aukera, zein kasutan har daitekeen.
- DBHko 3. mailan, hezkuntza sistemako irtenbideak: aukera aurre-profesionalak (PCPI-HLKP).

Hurrengo mailako irakasgaien helburu eta edukien ezagutza hobetzeko, ondoko bide osagarri hauek garatuko dira:

- Tutoreak informazioa ematen dio taldeari. Horretarako, mintegiek idatzitako informazioa erabiliko du.
- 4. mailan ematen diren irakasgaiei dagokienez, arloetako irakasleek euren ardurapean dauden irakasgaiei buruzko informazioa ematen diete ikasleei.
- Orientatzaileak ere parte hartzen du, ardurazko erabakiak hartzearen garrantzia aztertzeke, DBHko 4. mailako aukerako irakasgaietan.

Hurrengo mailara igarotzeko aukera gutxi duten ikasleen jarraipen hurbilagoa egingo da, eta, halaber, ikasle horiei banakako informazioa emango zaie, maila bukatzean, aurrean dituzten aukerak aztertzeke asmoz: errepikapena, PCPI-HLKP, Helduen Hezkuntza...).

Orientatzaileak egin ohi dituen jarduerak:

- Ikastetxeko zuzendaritzarekin batera, aurreko alderdiei buruzko informazioa ziurtatzeko materiala prestatzen du.
- Ikasleek eta euren familiek planteatzen dituzten zalantzei erantzuna emango die, tutoreak argitu ezin baditu.
- Ikasleek eskatuz gero, euren aukerak eta erabakiak hartzeko irizpideak birpasatuko ditu, eta, horrela, beharrezko diren aldaketak egin.
- Irtenbide aurre-profesionalak direla eta, ikasleekin eta euren familiekin adostuko ditu zuzenean beharrezko hitzorduak.
- PCPI-HLKP aukera hartzen duten ikasleen txosten akademikoak bideratuko ditu.

6. BERARIAZKO JARDUERAK DBHko 4. MAILAN

Tutoretza Planaren barnean garatzen diren jarduerak

Ikasleek etaparen amaieran hartu behar dituzten erabakiak errazteko helburuaz garatzen dira maila honetan garatzen diren jarduera nagusiak.

Orientabide akademiko eta profesionalaren jarduerak burutu ahal izateko, tutoreek eta ikasleek eskuragarri daukate Orientabide Mintegiak egindako materiala, plana garatzeko beharrezko diren informazioa eta jarduerak biltzen dituen.

Tutoretzako jardueretan, orientabidearen hiru alderdi nagusi hauek nabarmenduko dira:

- Norberaren gaitasunak, interesguneak eta ahuleziak ezagutzea, auto-azterketarako zenbait galde-sortaren bitartez.
- Hezkuntza sistemaren egitura ezagutzea, baita aukera eta ibilbideak ere. Hiru edo lau saio erabiliko dira hezkuntza sistemaren berri emateko: batxilergoa, erdi-mailako heziketa zikloak, unibertsitateko ikasketak egiteko aukerak batxilergotik eta goi-mailako heziketa zikloetatik, ikastetxearen eskaintzak...
- Erabakiak hartzeko trebetasunen garapena: aukera ezberdinen balizko ondorioak aztertzea. Maiatzetik aurrera, ikasleen datuak bilduko dira, ikasturtearen amaierako Orientabidea eta Aholkularitza prestatu ahal izateko. Irakasleen taldeak eta tutoreak horretaz arduratuko dira.

Orientabide programa burutu ondoren, zuzendaritzak ikasleen talde guztietan entregatuko ditu matrikularako orriak, eta horrela egiaztatuko dira ikasle guztien hautaketak.

Hurrengo mailara igartzeko zailtasunak dituzten ikasleei jarraipen hurbilagoa egiten zaie, eta maila bukatzean dituzten aukera ezberdinei buruzko informazio pertsonalizatuagoa ematen zaie (errepikapena, goi-mailako heziketa zikloetarako sarbide probak, PCPI-HLKP, Helduen Hezkuntza).

Bigarren hiru hilekoan, zuzendaritzak eta orientatzaileak familiekin egingo dute bilera bat, DBH etapa bukatzean, euren seme-alabek dituzten aukera ezberdinei buruzko informazioa emateko, baita Uribarri BHIko hezkuntza eskaintzari buruzkoa ere.

Zuzendaritza, Ikasketaburua eta DBHko koordinatzailea harremanetan jarriko dira Etxebarriko BHIko eta Basauriko San Jose ikastetxeko orientabide zerbitzuekin, institutua eta heziketa eskaintza aurkezteko, baita atekak zabaltzeko egunerako gonbidapena zabaltzeko ere.

Orientatzaileak egiten dituen jarduerak

- Programa barruan garatuko diren jarduerak aurkeztu: auto-azterketa, informazioa, karpetak banatu...). DBHtik aurrera, hezkuntza sistemaren eskaintzei buruzko informazio saioa.
- Batxilergoari eta Heziketa Zikloei buruzko txostenak eguneratuta egin ikasleentzat eta tutoretzetarako.
- Bigarren hiru hilekoan egingo den bileran, familiei emango zaien informazioa prestatu, ikastetxeko zuzendaritzarekin batera.
- Arreta berezia eskaini ikasleei eta euren familiei, tutoreak zalantza espezifikoak argitu ezin dituenean.
- Tutoreekiko lankidetzan, orientabide pertsonalizatua eman hala eskatzen duten ikasleei.

Aholkularitza DBH bukatzean

Derrigorrezko hezkuntza bukatzen denean, ikasle guztiek, lortutako kalifikazioekin batera, Orientabide Aholkularitzan, balizko ibilbide akademiko eta profesionalari buruzko argibideak jasoko dituzte. Hori guztia isilpeko informazioa da, eta inola ere ez da derrigorrezkoa izango.

Aholku horiek irakasleen taldeak egindako proposamen batean bilduko dira, eta bertan, ikasleek adierazitako interesguneak aintzat hartuta, baita euren gaitasunak eta aukerak ere, bide egokienak hartzeko hautaketak gomendatuko dira.

Orientabide Aholkularitzan, ikasleak, aldezturik, bere orientabide prozesua garatu du tutorearen eta orientatzailearen laguntza gidatuaren bitartez, Orientabide Akademiko eta Profesionalaren Programa barruan egindako jardueretan zehar.

7. BATXILERGOKO 1. MAILARAKO JARDUERA ESPEZIFIKOAK

Tutoretza Planaren barnean garatzen diren jarduerak

Etaparen hasieran, Batxilergoaren ezaugarriei buruzko informazioa emango diete tutoreek ikasleei: helburuak, irakasgaiak, ebaluazioa, kalifikazioak, jarraitzeko aukerak.

Hirugarren hiruhilekoan, tutoreek informazio saio hauek burutuko dituzte:

- Batxilergoaren heziketa ibilbideak eta 2. mailako aukerak.
- Unibertsitateko ikasketen eta batxilergoen arteko loturak:
 - A) Goi-mailako ikasketen egitura: Graduak
 - B) Hautaprobak
 - C) Batxilergoko tituluaren balioa: sarbiderako notak
 - D) Erkidegoko heziketa eskaintza
- Goi-mailako Heziketa Zikloen ezaugarriak, eta sarbiderako irizpideak.
- Lan munduan sartzeko aukerak:

Maila gainditzeko zailtasunak dituzten ikasleentzat: errepikapenaren antolaketa, modalitatea aldatzeko baldintzak...

- Ikasleek goi-mailako ikasketen ezaugarriak eta edukiak jakin ditzaten, zenbait saio eskainiko dira urtarrilean (21etik 25era bitarteko astean), tutoretza barruan, oinarrizko informazioa bermatzeko, eta ikasleek planteatu litzaketen zalantzak argitu ahal izateko.
- Orientabide akademiko eta profesionalaren jardura horiek garatzeko, tutoreek eskuragarri izango dute beharrezko materiala, orientabide zerbitzuak prestatukoak, hain zuzen.
- Maila gainditzeko zailtasunak dituzten ikasleei, jarraipen hurbilagoa egiteko asmoz, informazio pertsonalizatuagoa emango zaie maila bukatzean dituzten aukerei buruz.
- Saio horiek erlijio/Alternatiba orduetan antolatuko dira.

Orientatzaileak garatzen dituen jarduerak

- Talde bakoitzarekin informazio saio bat egin, aipatutako alderdiei buruzko informazioa bermatzeko. Tutoreek ere kolaboratuko dute.
- Oinarrizko txostena egin, 1. maila bukatzean dauden aukerak azaltzeko.

- Ikasle eta irakasleentzat eskuragarri dauden materialak eta baliabideak antolatu eta eguneratu.
- Ikasleek eta euren familiek planteatzen dituzten zalantza espezifikoak argitu, tutoreak ezin baditu bideratu.
- Tutoreekin lankidetzan aritu, ikasleei orientabide pertsonalizatua emateko.

8. BERARIAZKO JARDUERAK BATXILERGOKO 2. MAILAN

Batxilergoko 2. Mailan, orientabide akademikoaren eta profesionalaren helburua ondoko informazio hau ematea da, batik bat: etaparen amaieran dauden aukera ezberdinak, bereziki Unibertsitatea eta Goi Mailako Lanbide Heziketa.

Tutoretza barruko jardueretan, informazio saioak antolatuko dira ikasle guztiekin, ondoko alderdi hauei buruzko argibide egokiak emateko:

- Unibertsitateko ikasketen egitura
- Izapideen egutegia
- EHUko atak zabaltzeko egunetan parte hartzea (Bizkaiko Campus)
- Unibertsitatean, aurrez izena ematea
- Hautaprobak: egitura, kalifikazioa
- EHUko prestakuntza eskaintza
- Goi-mailako Heziketa Zikloak: sarbidea eta goi-mailako ikasketekin daukaten lotura.
- Goi-mailako Lanbide Heziketaren eskaintza
- Maila gainditzeko zailtasunak dituzten ikasleentzako aukera posibleak
- Informazio iturriak, ikasleek behar duten informazio osagarria lor dezaten.

Orientatzaileak garatzen dituen jarduerak

- Informazio saio batzuetan parte hartzen du zuzenean.
- Ikasleek eta tutoreek eskuragarri izango dituzten materialak eta baliabideak antolatu eta eguneratzen ditu.
- Tutoreei laguntza ematen die, familiekin zenbait informazio-saio antolatzeko.
- Ikasleentzat denboraldi zehatzak antolatuko ditu, kontsultak eta orientabide pertsonalizatuagoa emateko.
- EHUUn egiten diren informazio jardunaldietan parte hartzeko, ikasleen partaidetza antolatzen du.

- Ikasleentzako informazio panela antolatzen du (Intranet-en, eta ikastetxeko kortxoetan).

Aipatutako jarduerak modu koordinatuan egingo dira Zuzendaritzaren eta Orientatzailearen artean, eta ikasturtearen 2. eta 3. hiruhilekoetan garatuko dira.

Orientabide Mintegia
Basauri, 2013-2014